

## PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA						Kodea: 014777	
ARLOA / IRAKASGAIA	GIZARTE ZIENTZIAK						DATA	2022-2023
MAILA				4. MAILA				
1	ARLOAREN GUTXIENEN HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA							

- Datuak bilduz eta neurketa-aparatuak erabiliz, inguru fisikoko zenbait faktoreren (erliebea, lurzorua, klima, landaretza) eta bizimodu eta portaeren arteko harremanak hauteman eta azaltzea, eta oreka ekologikoa errespetatzeko jarrerak bereganatzeko.
- Administrazioaren eta bizitza publikoan parte hartzen duten erakundeen antolakuntza eta zenbait funtzio azaltzea, bai eta horiek gizartearen funtzionamendu politikoan duten eragina ere, hauekin errespetu eta lankidetzara azalduz, erantzukizun kolektiboetan norberak parte hartzearen garrantzia balioesteko.
- Espazioaren nozioak (planoak eta mapak) eta puntu kardinalak erabiltzea norbera ingurunean kokatzeko, zehaztutako espazioetan objektuak kokatzeko eta haien kokapena deskribatzeko, planoak eta eskala grafikodun mapak erabiliz.
- Adibide zehatzekin, gertakari historiko nabariekin lotutako eguneroko bizitzako alderdiren baten eboluzioa azaltzea, iraupen, segida eta aldiberekotasun nozioak identifikatuz.
- Aurretik zehaztutako gertakari edo fenomeno nabarmenei buruzko informazioa lortzea eta gertakari natural edo sozialei buruzko aurreikuspenak egitea, oinarritzko iturrietatik abiatuta egindako behaketetatik lortutako datuak bilduz; lortutako emaitzak ezagutzera emateko.
- Elkarrizketa eta gatazkak gainditzeko bideak bultzatuko dituzten jarrerak garatzea, besteen iritziak errespetatuz, hitz egiteko txandak itxaronez eta norberaren ekimena agertuz, taldeko lanean parte hartzen jakiteko.
- Auzoko, herriko tradizioak eta joko tipikoak ezagutzea, jakin-mina eta interesa erakutsiz, norberaren ondare kulturala, familiaren historia, etab. jakiteko.
- Denbora planifikatzea, aisialdiari eta ikasketari eman beharreko tarteak kontutan hartuz, bakoitzaren zereginak antolatuz.



2

## EDUKIEN DENBORALIZAZIOA LH 4

## 1. ebaluazioa

**GIZARTEAN BIZITZEA**

Euskal autonomia erkidegoa.

- Gizarte antolamendua. (Lanbideak eta sektoreak-zerbitzuak-hauteskundeak-)
- Foroak aipatu.

## 2. ebaluazioa

**GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA**

1. **Eguzki Sistema.**
  - Eguzkia
  - Planetak
  - Satelite artifizialak eta naturalak.
2. **Klima motak.**
3. **Hidrosfera.**
  - Ur-masa naturalak eta artifiziala
  - Uraren zikloa

## 3. ebaluazioa

**DENBORAREN ARRASTOA****DENBORAREN LERROA**

- Aro historikoen ezaugarri nagusiak ezagutzea.
- Nozioa: gertaera historikoak denboran antolatu.

**ANTZERKIA**

Historiaurrearen errepasoa eta antzinarioa (bizimodua eta gertaera garrantzitsuak)

3

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

- Administrazioaren eta bizitza publikoan parte hartzen duten erakundeen (GKEak, sindikatuak, alderdi politikoak...) zenbait funtzio azaltzea, bai eta horiek gizartearen funtzionamendu politikoan duten eragina ere, eta erantzukizun kolektiboetan norberak parte hartzearen garrantzia balioestea.
- Espazioaren nozioak (planoak eta mapak) eta puntu kardinalak erabiltzea norbera ingurunean kokatzeko, zehaztutako espazioetan objektuak kokatzeko eta haien kokapena deskribatzeko, planoak eta eskala grafikodun mapak erabiliz.
- Adibide zehatzekin, gertakari historiko nabariek lotutako eguneroko bizitzako alderdiren baten eboluzioa azaltzea, iraupen, segida eta aldiberekotasun nozioak identifikatuz.
- Aurretik zehaztutako gertakari edo fenomeno nabarmenei buruzko informazioa lortzea eta gertakari natural edo sozialei buruzko aurreikuspenak egitea, oinarrizko iturrietatik (ingurua, liburuak, Internet...) abiatuta egindako behaketa zuzenetik eta zeharkatutik lortutako datuak bilduz; lortutako emaitzak ezagutzera ematea, hainbat euskarri erabiliz.

**KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK****1. EBALUAKETA**

%20 Idatzizko froga

%20 Portafolioa

%5 Aurkezpenak

%15 Maketak

%40 Jarrera eta Prozedurak

**2. EBALUAKETA**

%30 Idatzizko froga

%15 Portafolioa

%15 Aurkezpenak

%40 Jarrera eta Prozedurak

**3. EBALUAKETA**

%20 Idatzizko froga

%20 Portafolioa

%5 Antzerkiaren gidioa

%15 Antzezlanak

%40 Jarrera eta Prozedurak